

IXIL-IXILIK

IXIL IXILIK DAGO,
KAIA BARRENIAN
ONTZI TXURI POLIT BAT
URAREN GAINEAN.

GOIZEKO ORDU BIETAN,
ESNATUTZEN GERA
ARRANTZALIAK BETI,
JOATEKO URRUTIRA.

PASATZEN NAIZENIAN,
ZURE LEIHOPETIK
NEGARRA IRTETZEN ZAIT,
BEGI BIETATIK.

ZERGATIK, ZERGATIK,
ZERGATIK,
ZERGATIK? ZERGATIK NEGAR
EGIN?
ZERUAN IZARRA DAGO,
ITSASO ALDETIK.

BAT, BAT BAT, BART
PARRANDAN IBILI
HIRU, HIRU, HIRU,
KOLKOA BETE DIRU,
KOLKOA BETE DIRU;
LAU, LAU, LAU,
SARDINA BAKALAU.

BART PARRANDAN IBILI;
BI, BI, BI, EZ NAIZ ONDO IBILI
EZ NAIZ ONDO IBILI;

ANTERON TXAMARROTIA,
SINKERREN BIBOTIA,
HARETXEK EI DAUKA, EI DAUKA
PRESO TXIMINOIA.

HAU DEK, HAU DEK,
HAU DEK UMORIA,
KONTSOLATZEKO,
KONTSOLATZEKO, EUSKALDUN
JENDIA.

KALIAN GORA, KALIAN BEHERA
KALIAN GORA ZEZEKA, AI, AI, AI,
KALIAN GORA, KALIAN BEHERA
KALIAN GORA ZEZEKA, AI, AI, AI,
KALIAN GORA, KALIAN BEHERA
KALIAN GORA, KALIAN BEHERA
KALIAN GORA, KALIAN BEHERA
KALIAN GORA ZEZEKA.

